

SARRERA

Euskalgintzaren Kontseiluak eta bazkideok, beste eragile sozial eta sindikalekin batera, EAEko Hezkuntza Lege berriaren prozesua abiatu zenetik hizkuntzaren korapiloa askatzeko ekarpenak egiten aritu gara azken urte eta erdian.

Apirilaren 25ean publiko egin zen lege proiektuak, tamalez, ez du jaso euskalgintzak eta hezkuntza komunitatearen gehiengoak euskararen inguruan lortutako adostasuna: euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu inklusiboa orokortzea.

Honen aurrean, hezkuntza-legean eragiten jarraitu nahi dugu. Baina, bereziki, lege honetatik harago begirada altxatu eta hezkuntza komunitatean eta jendarte osoan euskararen aldeko jarrera zabaltzeko apustua egin nahi dugu. Jakin badakigulako zenbait alderdi, talde eta norbanako ere kontrako norantzan indarrez eragiten ari direla.

Horrexegatik, iraila eta urria bitartean **«Hezkuntzak EUSKARA GEHIAGO behar du»** dinamika antolatzeari ekingo diogu Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, **sinadura bilketa** sendo batetik abiatuta. Eragileen adostasunaz gain, adostasun sozial zabal bat ere irudikatzeko. Hezkuntza-sistemak euskararen biziberritzean izan duen ezinbesteko paperari aitortza egin eta jauzi baten beharra aldarrikatu nahi dugu, legeari begira baina harago ere joango dena.

Aldarrikapen honek hiru ardatz izango ditu: euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa, euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculum, eta hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

Dinamika honetarako, gure bazkideen eta hezkuntza-komunitateko eragileen laguntza ezinbestekoa izango da: guraso elkarateak, irakasleak, sindikatuak, zuzendariak, norbanakoak... Hortaz, dokumentu honetan jasotzen diren sinadura bilketaren helburuak, baliabideak eta eragileei zuzendutako laguntza-eskaera zehatzak.

SINADURA BILKETAREN HELBURUAK

Hauek dira sinadura bilketari jarri dizkiogun helburuak, orokorretik zehatzenera:

- Jendartean euskararen aldeko iritzia eta jarrera hedatzea.
- Hizkuntzaren gaia agenda sozialean eta politikoan kokatzea.
- Hezkuntzako eragile eta norbanakoak euskararen alde aktibatzea.
- Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan gutxienez 30.000 sinadura biltzea, formatu fisikoan eta online.

SINADURA BILKETARAKO EUSKARRIAK

Euskarri guztiak sortzeaz eta eskuragarri jartzeaz Kontseilua arduratuko gara.

- Informazio euskarriak: sinadurak jasotzeko fitxa, azalpen gida eta argumentarioa.
- Euskarri grafikoak: kartela, eskuorriak, azalpen bideoa, sareetarako materiala...
- Sinadurak online biltzeko web plataforma.

Material guztia www.euskaragehiago.eus webgunean aurkitu ahal izango da irailaren 12tik aurrera.

ERAGILEEI ESKAERA ZEHATZAK

Kontseilutik bilketaren koordinazio orokorraz arduratuko ginateke, baita zailtasun eta behar ezberdinak betetzeaz ere. Hauek dira eragileei luzatzen dizkiegun eskaerak:

1. Sinadura bilketarekin bat egitea.
2. Zabalpenean laguntzea.
 - Elkarteko kideei sinadura bilketaren berri ematea eta parte hartzera gonbidatzea.
 - Ikastetxe, guraso elkarte eta langileen ordezkari guztiei edo ahalik eta gehienei sinadurak presentzialki jasotzeko euskarriak bideratzea (fisikoki edo email bidez): kartelak, eskuorriak, azalpen gida, argumentarioa eta sinadurak biltzeko orriak.
 - Sare sozialetan sinadura bilketaren inguruko informazioa eta ekimenak zabaltzea (mezu propioekin edo/eta Kontseiluarenak partekatzen).
3. Kanpainaren bukaeran, kideei sinadura fisikoak Kontseiluari entregatzeko irizpideak zabaltzea.

Orotara, eragile bakoitzari 10-15 ordu arteko dedikazioa eskatzen diogu, gainerako lan karga ikastetxeetako langile eta gurasoen artean banatuko litzatekeelarik. Koordinazio lana errazteko asmoz, eragile bakoitzetik harremanetarako pertsona bat zehaztea eskertuko genuke. Edozein zalantza argitzeko, hezkuntza@kontseilua.eus posta helbidera idatzi ahal izango da.

Azkenik, hezkuntza komunitatetik harago, bestelako eragileekin ere hitz egingo dugu sinadura bilketak toki gehiagotan gauzatzeko: euskaltegiak, euskara elkarteak, jaialdiak, kaleko bilketa eta ekimenak...

EGUTEGIA

Sinadura bilketa 2023ko irailaren 12an arratsaldeko 17:30ean aurkeztuko da Gasteizen, eta sinatzeko epealdia hilabetez luzatuko da, irailaren 12tik urriaren 15era bitartean. Urriaren 15ean bilketa-kanpaina itxi eta hurrengo astean emaitzen berri emango da prentsaurrean.

OHIKO GALDERAK

Zer ari naiz sinatzen?

Eskaera honen bidez Eusko Legebiltzarreko kideei eskatu nahi zaie EAEko Hezkuntza Lege berriak honako hiru puntuak berariaz jaso ditzala:

1. Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa (euskarazko ikasteredua).
2. Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculuma.
3. Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

Zergatik sinatu eskaria?

Hona hemen euskarazko ikasteredu orokortuaren aldeko bost arrazoi:

1. Euskara ikastea eskubide kontua delako. Herritar guztiek dute euskara ezagutzeko eskubidea, edozein izanik ere haien bizitokia, egoera sozioekonomikoa, jatorria edota ingurune soziolinguistikoa. Gaur egungo hezkuntza sistemak ez du eskubide hori bermatzen, eta onartezina da milaka haur eta gazte euskara gaitasun nahikorik gabe uzten aritzea.
2. Euskara gutxiago duenari gehiago eman behar zaiolako. Etxetik euskara jasotzen ez duten edo zaurgarritasun soziolinguistiko handiagoa duten ikasleei arreta berezia eta behar bezainbeste baliabide eskaini behar dizkie hezkuntza sistemak.

3. Ikasleak euskalduntzeko eredu arrakastatsuen delako. Datuek erakutsi dute ikasle euskaldun eleaniztunak sortzerako orduan arrakasta gehien izan duen hezkuntza eredu delako euskara ikas- eta irakats-hizkuntza duena; D eredu, alegia.
4. Kultura ere eskubidea delako, eta kalitatezko hezkuntzaren bidean, ezinbestekoa da euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatzea, gizarte-kohesiorako elementua baita.
5. Euskara bizikidetzaren giltzarria delako. Euskara ezagutzea, aberastasun bat baino gehiago, belaunaldi berrien aukera berdintasunean zuzenean eragina duen elementua da, izan garapen profesionalari begira zein eguneroko bizitza sozialean ere.

Noiz, nork eta nola sinatu daiteke?

Sinadura bilketa 2023ko irailaren 12tik urriaren 15era luzatuko da, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarrek eskaria sinatu ahal izango dute presentzialki, sinatzeko jarriko diren mahaietan, zein www.euskaragehiago.eus webgunean online. Pertsona bakoitzak behin bakarrik sinatu ahal izango du eskaria, izen-abizenak eta nortasun agiria adieraziz.

Nondik sortzen da sinadura bilketa hau?

2022ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, EAEko Hezkuntza Lege berriak jaso beharreko hiru neurri jasotzen zituen «Euskara eta euskal kultura, etorkizunaren ardatz» adierazpena aurkeztu zen Bilbon. Hezkuntzaren, kulturaren eta euskararen munduko 211 adituk, sortzailek eta profesionalak eman zioten atxikimendua adierazpenari, aurretik euskalgintzak eta hezkuntza komunitateko eragile garrantzitsuenek egindako proposamenaren bide beretik: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntza-sistema osoan euskara ikas- eta irakats-hizkuntza normalizatua izan dadila, eta horretarako, EAEko Hezkuntza Lege berriak euskarazko ikasteredu orokortu inklusiboa berariaz jaso dezala.

Zein da sinadura bilketa honen helburua?

Sinadura bilketa honen bidez Hezkuntza Lege berrian eragitea bilatzen dugu. Bide horretan, jendartearen euskararen aldeko jarrera sustatu eta ikas komunitatean euskarazko ikasteredu orokortzearen aldeko iritzia bultzatu nahi dugu.

Sinadurek balio legala izango dute?

Ez, sinadurek ez dute balio legalik izango. Presio eta kontzientziario kanpaina bat izango da, eta sinadura kopuruak eskari hauen indar soziala erakutsiko dute. Beraz, geroz eta sinadura gehiago lortu, euskararen alde eragiteko gaitasun handiagoa izango dugu.

Zer egingo da sinadura hauekin?

Sinatzeko epea bukatzerakoan, sinadura fisikoak eta digitalak bateratu, errepikatutakoak ezabatu eta zenbaketa egingo dugu. Sinadura kopuru totalaren berri emango zaie hedabideei, bai eta Eusko Legebiltzarreko kideei eta bertako talde politikoetako arduradunei. Ondoren, sinadura orriak suntsitu eta datu basea ezabatuko dugu.

Aurrerago kanpainak jarraipena izatea aurreikusten da?

Urriaren 15etik aurrera sinadura bilketaren emaitzaren aurkezpen publikoa egingo dugu. Emaitzaren arabera, ekimen edo mobilizazio berriak deitzea aztertuko dugu.

Nola lagundu dezaket?

Laguntzeko prest dauden boluntario, irakasle, langile, guraso zein ikasleek bi modutara egin ahal izango dute ekarpena. Lehenik, sinadurak presentzialki jasotzeko mahaiak antolatzea ikastetxeetan, lantokian, kalean eta bestelako espazio publikoetan. Sinadurak biltzeko eta hitzorduak komunikatzeko baliabide guztiak eta gidaliburua www.euskaragehiago.eus webgunean topatu daitezke. Bestalde, sinadura bilketaren zabalpena eginez whatsapp zein sare sozialen bidez, norberak sortutako edukiekin, www.euskaragehiago.eus atarian igotako materiala erabiliz edota sareetan #EuskaraGehiago traola erabiliz. Edozein zalantza edo behar izanez gero, idatzi hezkontza@kontseilua.eus posta helbidera.

Nola bidaliko dizkizuet sinadurak?

Sinadura bilketaren azken egunetan, presentzialki jasotako sinadurak guri helarazteko azalpenak igo eta formulario bat irekiko dugu www.euskaragehiago.eus webgunean.